



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Osteguna
2009-10-22**

VILURTEA 1.807 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



R. CALVO

ARANTXA GARAIBURU GAZTAGILEA

«Gu garela gaztak egiten bakarrak iruditzen zaigu, baina ez da horrela»

BERASTEGI Gazten Munduko Txapelketan parte hartu berri du Kanaria Handia irlan, eta besapean hiru sari dituela itzuli da etxera » 6

Amaraunean nabigatzeko aukera herritar orori irekia

ARESO Wifi sistemaren bidez etxe eta baserri guztietan dute orain Internetarako sarbidea » 7

Jubilatuen Eguna ospatuko dute igandean hainbat ekitaldirekin

ALTZO Abesbatzaren saioa, dantza emanaldia eta bazkaria izango dira » 5



Atzo egin zuten ekimenaren aurkezpena antolatzaileek. I.T.

VI. Euskal Kirolaren Eguna hartuko du igandean Usabal kiroldegia

TOLOSA Euskal Kirol Federazioen Batasunak antolatuta, 30 kirol modalitate ikusteko aukera izango da; herritar guztiei irekia izango da » 2

200 dantzari txikik alaituko dute herria igande goizean

ALEGIA Alegiakoez gain, beste zortzi herritako dantzariak ariko dira, 10:00etatik aurrera » 5

JUAN MARTIN ELEXPURU EUSKAL FILOLOGIAN DOKTOREA

«Grafitoen faltsutasuna ez dago behar bezala frogatua gure ustez»

VILLABONA 'Iruña-Veleiako grafitoak egiazkoak?' hitzaldia jorratuko dute gaur » 4

'Leidor Sessions' dokumentala pantaila handian erakutsiko dute bihar

Kultura » Bide Ertzean talde tolosarraren azken proiektua Leidor antzokian aurkeztuko dute bihar iluntzean, 20:30ean.

ERREDAKZIOA

Leidor Sessions dokumentala pantaila handian ikusteko aukera izango da bihar iluntzean. Bide Ertzean azken proiektua sortu zen toki berean aurkeztuko dute tolosarrek. Emanaldia 20:30ean izango da.

Talde tolosarraren 10 urteko ibilbidea laburbiltzen duen dokumentala da *Leidor Sessions*. Urtarrilaren 16an 1998-2008 urteetan egindako diskoen eta kantuen errepaso egin zuten Bide Ertzeanekoek kontzertu berezi batean. Kantu zaharrenak boskoterako birmoldatuta eta abesti berrien bat entzuteko aukera izan zen bertan.

Kontzertua, iragarri bezala, ikusgarria izan zen. Jendetzabildu zen eta guztiak ere pozarren gera-



Urtarrilaren 16an Tolosan emandako kontzertuaren irudiak ikusi daitezke dokumental honetan. KULSK

tu ziren bizitako esperientziarekin. Zuzeneko hori, bederatzi hila-beteko lanaren ondoren, CD eta DVD formatuetan argitaratu dute. «Berezia, bakarrazan zelako Tolosako saioa» taldekoen esanetan. Kontzertu honetaz gain, taldearen ibilbidean bidelagun izan di-

ren hainbat pertsona ezagunen esanak ere biltzen dira. Hauek, tolosarren ibilbideaz, ekarpenaz eta musika ulertzeko ikuspegiak mintzo dira. Bestalde, birmoldatutako abesti zaharrek batera, berri bat ere egin zuten proiektu honetarako, *Graffiti* hain zuzen ere.

Raul Lopezen zuzendaritzapean, Modu Soperandis ekoiztetxea arduratu zen kontzertua irudietan jasotzeaz. Lan honetarako, orain arte argitaratutako diskoetako eta euskal pop-rockaren klasi-koak diren 16 abesti aukeratu zituzten.

Datorren urtean 14 zortzimilakoak amaitzen saiatuko da Edurne Pasaban

Kirolak » Atzo iritsi zen Madrilera eta agertu zuenez, udaberrian Annapurna igotzen ahaleginduko da.

ERREDAKZIOA

Shisha Pangma igotzeari uko egin ostean, etxerako bueltan da Edurne Pasaban. Atzo iritsi zen Madrilera. Edurne Pasaban Shisha Pangma (8.027 metro) igotzeko ahaleginean ari zen, Asier Izagirrekin eta beste hainbat lagunekin batera. Baina urriaren 14an asmo horri uko egin behar izan zion, haize gogorrek zeudelako. Iragarpenek ere hurrengo egunetarako albiste txarrak zituzten, 60-80 kilometro orduko haize boladak iragarri baitzituzten. Ondorioz, espedizioa bertan behera uztea erabaki zuten, berak, eta *Al filo de lo imposible* taldekideek.

Mendigoizale tolosarrak agertu zuenez atzo, udaberrian saiatuko da Annapurna igotzen.

Desfibrilagailu automatikoa duen lehen Gipuzkoako jatetxea izango da Fronton



Ikastaroa hiru saioz dago osatua; lehenbiziak asteartean egin zuten, eta atzo berriz, bigarrena. E. EZEIZA

Gizartea » Larrialdi kasuetan hau nola erabili behar den jakiteko ikastaro bat eman diete langileei Gurutze Gorrikoek.

ERREDAKZIOA

Gero eta toki publiko gehiagotan aurkitu daitezke desfibrilagailu automatikoak. Hala, Tolosako Fronton jatetxea izango da hau duen lehenbiziako jatetxe gipuzkoarra. Hauek Gurutze Gorrian egin zuten eskaera, eta aste honetan bertan, bertako langileek ikastaro bat jaso dute, nola erabili jakiteko.

Asteartean egin zuten ikastaro-

ko lehen saioa, atzo goizean beste bat egin zuten, eta azkena gaur egingo dute. Bertan, simulazio bat egin zuten, bezero bati bihotzekoak emango balio bezala eginaz. Hala, jatetxeko langileek, horrelako larrialdi batean zer egin behar duten erakutsi zieten Gurutze Gorriko arduradunek. Azken hauen ustetan, oso garrantzitsua da horrelako bat izatea, eta larrialdi kasu hauetan nola jokatu behar den jakitea.

Desfibrilagailu automatiko ezargarriak (DAE) arritmia benetrikularrek eragindako bat-bateko heriotzen duen eraginkortasuna agerikoa da, horrela DAE daramaten gaixoen bat-bateko heriotzaen tasa urteko %1-2koa besterik ez da.

Legearen arabera, 2010eko urritik aurrera, leku publiko guztietan egon beharko da desfibrilagailu automatiko bat. Hala, Fronton jatetxeak aurre hartu dio honi, eta dagoeneko jartzea erabaki du.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



lazio Dantzari Txiki Egunaren une bat. PATXI RENOBALES

200 dantzari txiki espero dituzte igande honetan

Alegia » Dantzari Txiki Eguna egingo dute eta Alegiakoez gain beste zortzi herriakoak izango dira parte hartzen.

ERREDAKZIOA

Dantzari Txiki Eguna antolatuta dute igande honetan Alegian, Udazkenean Kultura egitasmoaren baitan. Alegiakoez gain beste zortzi herrikoak izango dira: Anoeta, Andoain, Hernialde, Iruia, Lizartza, Tolosa, Urnieta eta Villabona. Guztira 200 dantzari inguru izango direla espero dute antolatzaileek. Batez ere 6 eta 12 urte bitarteko dantzariak izango dira

igandean, baina gaztetxoagoak ere izango dira.

10:00etan elkartuko dira parte-hartzaileak Eskolako jolaslekuan. Ondoren, 10:30ean abiatuko dira kalejiran Larraitx auzoan zehar. Bertako plazan herri bakoitzeko talde bakoitzak dantza bana eskainiko du. Horren ondoren herriko frontoian hamaiketako egingo dute eta segidan Kale Behera joango dira kalejiran. Han herri bakoitzak beste dantza bana eskainiko du.

Ekitaldiari bukaera emateko herriko plazan herri bakoitzak beste dantza bana eskainiko du. Plazan, hasieran denak batera *Agurra* dantzatzuko dute eta bukaeran fandango eta arin-arina dantzatzuko dute.

Jubilatuaren Eguna ospatuko dute igandean

Altzo » Besteak beste bazkaria izango dute Arandia jatetxean; bertsolariak eta trikitilariak izango dira bertan.

ERREDAKZIOA

Altzoko Udalak antolatuta eta urteroko ohiturari jarraituz, igande honetan, hilak 25, Jubilatuen Eguna ospatuko dute. Egunari hasiera meza nagusiarekin emango diote,

12:00etan. Ondoren Altzoko abesbatzak emanaldia egingo du. Hauen atzetik herriko Artea dantza taldearen txanda izango da beraien saioarekin.

Ekitaldi horien ondoren, 14:15ean, bazkaria izango dute jubilatuek herriko Arandia jatetxean. Bazkaria eta bazkari ondorena girotzeko bertsolarien eta trikitilarien jarduna izango da. Bertsolarien dagokionez, Zeberio eta Mañukorta ariko dira koplak kantatzeko.



Mokolo eta Poxpolo, emanaldiaren une batean. HITZA

Poxpolo, Mokolo ta Konpainiaren emanaldia

ERREDAKZIOA

Altzoko Udalak Poxpolo, Mokolo eta Konpainia taldearen emanaldia antolatuta du etzirako, larunbata, 17:00etan. Frontoian izango da saioa eta *Mekaxis Mariatxi!* obra taularatuko dute.

Poxpolo, Mokolo eta Konpainiak azken urtean herriz herri egi-

ten ari diren ikuskuzina da *Mekaxis Mariatxi!* Pailazoek agertzen dutenez, «istorio barregarriak, abesti berriak, une hunkigarriak... goitik behera berritutako emanaldia prestatu dute», bai etxeko txikienek eta baita handienek ere «ondo baino hobeto pasa dezaten».

L Laburrak

Intxurrekoen pilota partidak bihar

PILOTA » Intxurre elkarteak pilotariak partidak izango dituzte bihar. Hiru partida ikaztegiaren izango dira, 20:00etan. Lehenengoan bigarren mailako kadeteen artean, Intxurrekoak Aurrera Saiazen aurka ariko dira. Bigarrenengoan, lehen mailako kadeteena, Intxurre Gai-lurrenratz lehiatuko da Aurrera-Saiazen aurka. Hirugarrenengoan, Nagusien hirugarren mailan, Intxurre 2 eta Usurbil 1 lehiatuko dira. Etxez kanpoko partidetan, banaka kadeteetan, Legazpiko Gazteetxearen aurka ariko da Intxurreko pilotaria, 19:00etan. Bestean, 19:15ean, Oiarperen aurka ariko dira lehen mailako kadeteak.

16 partidetatik 9 irabazi ditu Aurrera-Saiazek

PILOTA » Aurrera-Saiazeko pilotariak 16 partidetatik 9 irabazi zituzten asteburuan. Kadete 2. mailan, 22-7 irabazi zioten Behar-Zana 2ri. Kadeteetan banaka, 18-12 galdu Goierriekin. Jubeniletan banaka, Eskoriatzaren aurka 16-22 galdu zuen. Jubenil 1. mailan, 22-5 irabazi zioten Eskoriatzari eta 22-20 Gaztelekuri. Jubenil 2. mailan Antiguakori 22-6 eta Atauni 22-9 irabazi zioten. Nagusietan, banaka, Ozkaribiri 6-22ri irabazi eta Lapken aurka 22-20 galdu. 3. mailan 5-22 irabazi zioten Intzari eta 22-15 galdu Ilunperen aurka. 2. mailan 6-22 irabazi Zumaiari eta 1. mailan 22-8 galdu Bergararekin. Ohorezkoetan Ilunperi 22-6 irabazi eta Aurrera-Saiaz 1-k 22-8 irabazioten Aurrera-Saiaz 3ri.

Bihar arte ikastaroetan izena emateko aukera

ALEGIA » Udazkenean Kultura egitasmoaren baitan bi ikastaro dauka: txalaparta eta makrobiotika. Izena Kultur Etxean eman behar da eta bihar da azken eguna.

VI. Euskal Kirolaren Eguna

Tolosako Usabal Kiroldegia

Urriak 25
11:00 / 15:00

Euskal Kirolaren Federazioa
Federatu zaitez!

EKFB
Antolatzailea

Euskal Federazioen ibarduerak, txapelketak eta erakustaldiak

0034 7459 6761 5962



Guraso Elkarateak antolatuta gaztain bila joan dira

ARESO ■ Eskolatik atera ondoren haurrak eta gurasoak plazan elkartu ziren atzo. Guraso Elkarateak gaztain bila joateko irteera antolatu zuen herrian bertan, eta deialdiari erantzunez, 20 bat lagun elkartu ziren. Gaztainak gaztainondoetan

aurkitzen dira eta hauek mendian. Aitzaki horrekin itzuli polita eman zuten inguruko basoetan barrera, atzo egiten zuen giro ederra aprobetxatuz. Haurrak euren poltsekin joan ziren gaztain bila, «ilusio handiarekin». Herrira itzultze-

an, hainbat gurasok prestaturiko merienda jan zuten. Elkar- teko kideen esanetan hurrengo asteazkenean, «eguraldiak laguntzen badu», berriro joango dira gaztain bila. Bildutako- ak azaroaren 6an erre eta jango dituzte. ASIERIMAZ

Herri guztira zabaldu dute Internet Wifi sistemarekin

Areso ■ Herrira joaten den edonork, edozein puntutatik Interneten sartzeko aukera dauka Wifi bidez.

ASIERIMAZ

Aresoko etxe eta baserri guztiek Internet edukitzeko aukera daukate Wifi sistemari esker. Udalak aurtien jarri du ekimena martxan, eta jadanik Nafarroan oihartzun handia eduki du. Ideia honen sortzaile eta bultzatzaile nagusia, Aresoko alkatea bera da, Mikel Barai- bar.

«Edonork, edonon»

Baraiarren esanetan, Wifi sarearen ideia arazo bati eman beharreko irtenbide bat sortu zitzaion: «Aresoko leku askotan ADSLa ezin genuen kontratatu, telefono konpainiei inbertsioa ez zitzaielako errentagarria iriten. Herritar guztiek aukera hori izan zezaten, beste bide batzuk begiratzen hasi nintzen. Batzuekin eta besteekin hitz egin ondoren, herrian seinale on bat edukiz gero, Wifi sistemaren bidez seinale hori herri guztian banatzea posible zela jakin nuen».

Gauzak horrela, Internet seinalea udaletxera iristen da lehenik. Bertan, elizan eta beste hainbat puntutan kokaturik dauden antenek, Internet konexioa etxe eta baserri guztietara zabaltzen dute. Baina etxeko ordenagailura iristeko, router izeneko kajatxo bat behar izaten da eta hori Aresoko uda- letxean ematen dute. Baraiarren esanetan hori da erabiltzaileek

egin behar duten gauza bakarra: «udaletxetik irteten den seinalea hartzeko prestaturik dauden rou- terrak, udaletxean bertan daude, bakoitza bere IP helbidearekin. Erabiltzaileak routerra hartu eta etxeko ordenagailua konfiguratu besterik ez du egin behar, bost mi- nutuko lana. Ondoren beste edo- zein Internet konexiorekin beza- laxa, ikonoa klikatu eta listo».

Herritarrez gain, Mikel Barai- barrek azaltzen duen bezala, kan- potik egun pasa edo asteburu pasa doanak Wifi sisteman konektatze- ko aukera edukiko du, bost helbide libre utzi baitituzte: «edonork, he- rriko edozein puntutan Internet- ten ibiltzeko aukera dauka bere portatilarekin».

Oihartzun handiko ekimena

Nafarroan herri txiki askok arazo berdinak dituzte, «mendiko he- rriak direlako eta konpainiei hor

sartzea ez zaielako interesatzen». Baraiarren esanetan, «herri asko- tatik deitu dute Aresora, ea nola egin dugun, nork jarri digun, la- guntzak nola lortu ditugun eta abargaldetuz».

Diru kontuetan, BEZaren %16a albo batetara utzita, Udalak 7.600 euroko inbertsioa egin du. Baina proiektu osoaren kostua 25.583,10 eurokoa denez, beste 18.000 euro- ak Cederna Garalurren bidez lortu ditu Aresok, Europako Leader Plus proiektutik. Cedernatik argi- tu dutenez, proiektu honetan Eu- ropako elkarrearen eta Espainiako zein Nafarroako Gobernuen diru laguntzak aurkitzen dira.

Ekimen berritzaile honen azken adibidea berriz lehiaketetan aurki- tzen dugu, Aresoko Wifi gunearen ekimenak ondorengo hilabeteet- an nazio mailako eta Nafarroa mailako lehiaketetan parte hartu- ko baitu.



Aresoko udaletxearen teilatuan, seinalea banatzen duten 3 antena daude. A.I.



Inguruarteko heliportua amaitzeaz

LEITZA ■ Larrialdi zerbitzuetarako erabiliko den heliportua amaitzen ari dira udal langileak Inguruarten. 15X15 metroko zabalera eta 15 zentime- troko altuera dauka heliportuak. Horretaz gain, anbulantzia eta helikop- teroaren arteko bidea errazteko, plataformak 1,5 metroko zabalera duen sarrera dauka. Oinarrian hondarra eta hartxintzarra dauka, gainean be- rriz hormigoia. Lanak amaitzeko, erdian H handi bat eta piboteak lotuko dituen katea jartzea falta dira. A.IMAZ

Iragarki laburrak

LANA

■ **Etxeko lanak.** Emakume euskal- duna eskaintzen da goizez lan egi- teko, haurrak zaindu, etxeko lanak egin... edo ostalaritza alorrean ari- tzeko prest. Harremanetarako te- lefono zenbakia: 629 41 38 24.

ALOKAIRUA

■ **Baserria.** Borda edo baserri bat hartuko genuke alokairuan. Bizile- kuaren egoerak berdin dio, beha- rrezko konponketa lanak egingo bait genituzke. Interesatek deitu 634 45 9110 zenbakira.

